



BALOREZKO PROPOSIZIOA

Araba osoan zehar, eta konkretuki Gasteizen, kolektibo honen barruan dauden pertsonak, gaixotasuna onartuta baldin badauka erakunde batera sartzeko erraztasun asko izango ditu, baino oraindik gaixotasuna aitortua ez baldin badauka sartzeko zailtasun asko izan ohi dituzte leku konkretu batean sartzeko. **BURUZBEN** erabiltzaileak elkarrizketa baten bidez hautatuko genituzke inongo aitortze medikoarekin, hortaz egoera desberdinetan duden pertsonak sartuko lirateke gure erakundearen. Aniztasun hori guretzat balorezko proposamen trinkoena izango litzateke, Orain arte dauden erakundetako desbideratze protokoloekin pertsona hauek etengabeko klasifikazio batean bizi direla dirudi, inorekin nahastu gabe, aniztasuna dastatu gabe hain zuzen ere.

Hala ere bezeroei deigarrien izango zaien balorezko proposamena gure ekintzen berritasuna izango da. Gaur egungo erakundearen diru partida publikoak enkantean sartu baino lehen nora joango diren argi, agerian dagoen sekretua da Araban, kolektibo bakoitzeko erakunde bat edo bi daudelako. Egoera honek erosotasun batera eraman dituzte ilusioz beteta aspaldi hasi ziren elkarteei. Urtero ekintzen egutegi berdina sortzera eraman dute, inongo berritzeko asmorik gabe erosotasunaren barnean beti.

Egitasmo honek eskaintzen dituen zerbitzuei erreparaturaz, udaberrian agertzen diren loreak bezalakoak dira, hasi berriak, koloretsuak, freskoak, indartsuak eta hazteko prest daudenak.

Denbora libreari aprobetxamendu berria eman nahi diogu, historian zehar kolektibo honi egin zaion bazterketa dela eta sortu diren taboo eta muga psikologikoak apurtzeko helburua izanik, etengabeko ongi pasatzea eta auto-gaikitzea proposatzen dugu.

Kirolak (mendi martxa, boccia inklusiboa, eskalada,...) Arteak (margotu, antzeztu, musika...) etab. izango dira gure helburua lortzeko harrimintak.

